

Paxkal Indo

◆ SEASKAKO PRESIDENTEA



## Eta orain zer?

ZER GERTATU DA HENDAIAKO IKASTOLAREN EGOITZA BERRIAREN PROIEKTUAREKIN?

Hendaiako ikastolan 246 ikasle dira. Iparraldeko ikastolan handiena lehen mailetan. Baina horietarik 66 Pausuko (Behobia-Urruña) eskola zaharrera joaten dira, biziki baldintza txarretan. 2007tik egitekoa zen ikastola berriaren proiektua auzapezak Herriko Kontseiluari presentatu dionean abenduan, Baionako suprefetak abisua eman du. Zehazki aipatzeko, Hendaiako Herriko Etxea Iparraldeko lehenetarik izan ikastola laguntzen. Duela hogeitaz jada, Ikastolaren alde bozkatu zuen Herriko Etxeak eta ikastola berri bat eraiki zen. Ofizialki asialdi-gune bat eraiki zen eta administrazioak onartu zuen asialdi gune hori diru publikoarekin ordaintzea. Udaleku Elkarteak baliatzen badu ere, hendaiarrek badakite ongi Ikastola dela

zen lehen ikastola Baionan, 5 haurrekin. Gaur egun 3.000 goiti dira euskaraz ikasten ari, Ipar Euskal Herriko hiru eskualdeetan diren 30 ikastoletan. Eta hor dugu galdera: Iparraldean murgiltze eredia Seaskak bakarrik eramaten duelarik, ez ote du euskararen aldeko politika publikoa parte handiena bere bizkar eramaten? Ipar Euskal Herrian euskararen alde egiazko politika bat baldin bada, Seaskak eramaten duen lana ezinbestekoa dela aitortu beharko du administrazioak, behin betiko. Eta hala eginez, Iparraldeko ikastolak ez direla eskola pribatu “arruntak” aitortu beharko luke. Seaskako burrasoek ez dute eskola pribatuaren hautua egin, euskararen hautua egin dute. Beren haurrak Iparraldeko euskaldun kopuru ttipitzen ari den horietarik izan ditezten hautua egin dute. Beraz suprefetak igorri duelarik bere gutuna Hen-

daiako auzapezari ikastolan diren 3.000 haurrei zuzentzen zuen. Iparraldean euskararen hautua egin duten guztiei zuzentzen zuen.

Gaur egun gure haurren %90 aterpetzen dituen ikastolen %80 eremu publikoetan da osoki edo parte handi batean (lur publikoa, eraikuntza publikoa edo subentzio publikoak ukaiten dituen gure eraikuntza). Gutun horrekin,

suprefetak zioen jadanik eginak izan diren ikastolen kontra ez dela itzuliko, baizik eta proiektu berriak blokatuko dituela. Arazoa da kasik ikastola guztiek dituztela handitze edo ikastola berri proiektuak eta ondorioz ikastola guztiak blokatzen ahal ditu. Hendaiakoa ez bada pasatzen, ondotik heldu diren guziak ez dira pasako. Eta horretan da arazo nagusia. Zer bilakatuko da hizkuntza politika edozein suprefetak ikastolen garapen gelditzen ahal badu egun batetik bertzeraz?

Beraz, zer egin? Manifik antolatu, dudarik gabe. Baita kantaldiak, inauteriak, Olentzero eta Herri Urrats ere! Euskara bizi dela aitortuz, erakutsiz. Bestalde, legea aldatu beharko da eta gure medio ttipi guziak horren alde ezarriko ditugu.

Ipar Euskal Herria ez bada ezer Parisen ere, lortuko dugu! Lortu behar dugu-lako! ■



*Iparraldean murgiltze eredia Seaskak bakarrik eramaten duelarik, ez ote du euskararen aldeko politika publikoa parte handiena bere bizkar eramaten? Euskararen alde egiazko politika bat baldin bada, Seaskak eramaten duen lana ezinbestekoa dela aitortu beharko du administrazioak, behin betiko*

hor aterpetua: Hendaiako Gure Ikastola. Zerk derri-gortzen du horrelako gezurrik babestea? Lege zahar baten aztarna batzuek; 1850 urtean Falloux diputatuak bere izena atxikiko zuen lege aurkeztu zuen Parlamentuan. Lege horrek, eskola pribatu eta publikoaren arteko oinarri legalak definitzeaz gain, Eskola Katolikoaren baldintza pedagogikoak eta Errepublikaren Elizaren arteko ardurak arautzen zituen. Oso gauza gutti gelditzen da legea zahar horretarik. Kontzeptu bat: eskola pribatuarena, eta arau bat: “Eskola publiko diru publiko, eskola pribatu diru pribatu”.

ZER DIO BAIONAKO SUPREFETAK ?

Baionako suprefetak dio Hendaiako Herriko Etxeak ez dezakeela eskola bat eraiki gero Ikastola bati uzteko. Falloux legean oinarrituz. Baina Seaskan ez dugu legea eta bereziki Iparraldeko errealitate soziolinguistiko eta politikoa berdin ikusten! 1969 urtean sortu